

FAMILIEN ELKARGUNEAK: GURE BAKEA



25

Caur egun, gurasoen eta umeen arteko harremanak aldatzen ari dira eta sozietatea familia krisialdian dago. Horregatik familien elkarguneak, banaketaren ondoren eta umearengan sortu daitezkeen egoera gatazkatsuei aurre egiteko, aholku legala edo laguntza psikologikoa behar duten familia askorentzat erreferentzia puntu bihurtu dira.

Gure Bakea elkargunea toki neutrala da. Bertan, gurasoak banandurik edo dibortziaturik daudela, seme-alabak bisitatzeko eskubidea betetzen ez bada edo nekez betetzen bada, gurasoen eta umeen arteko tratua mantentzera laguntzen da. Zentrua Portugaleteko Udaletxeak eraiki zuen, Bizkaian zabaldu zen mota honetako lehena, urte honetan 40 kasu inguru aintzat hartu ditu. Momentu honetan, Foru Aldundiak Bilbon duen beste gune bat existitzen da.

Udal zerbitzu hau, Portugaleteko familietako adingabeak babesteko laguntza da, hala ere

hurbiltasunagatik ezker aldeko kasuak ditu. Dolores Ciordiak, Ongizate Sozialaren Lehendakaria, eta laguntza honen sustatzailea dio "helburua adingabeen segurtasun eta ongi izatea bermatzea da eta banaketa kasuetan egoera eramangarriak bilatzea izan ere traumatikoak baitira. Elkargunea sortzea, adingabeei babesari dagokionez, lotzeko gelditzen zen haria zen".

Elkargunea funtsean bikote bananduentzat da eta erabil daiteke seme-alaba adingabeen kustosiarik ez daukan gurasoa gaixorik dagoenean, hazteko gaitasunik ez duenean edo, egoera kontuan hartuta, gurasoa eta seme-alabak elkartzea ikuskatu behar denean.

Laguntza honako kasuetan erabili daiteke:

-Kustosiarik gabeko gurasoa seme-alabengandik oso urrun bizi denean edo bere etxea egokia ez denean (pentsio bataean bizi bada, familiakide askorekin batera bizi bada edo adingabeari kalte